

Erromes errusiarraren kontakizunak

XALBADOR GARMENDIA

(Zaldibia, 1932)

Idazlea, antzerkigilea, baina batez ere itzultzailea da Xalbador Garmendia. Bereak dira besteak beste ondorengo itzulpenak: *Gizon zuzenak* (Camus), *Printze txikia* (Saint Exupéry), *Heriotza iragarritako baten kronika* (García Márquez), eta abar. Eusko Kontseilu Nagusia eratu zenean bertako lehen itzultzailea izan zen eta Euskal Autonomia Elkarteko autonomia estatutua itzuli zuen. *Egin* egunkarian euskara arduradun bezala egin du lan erretiratu den arte. *Erromes errusiarraren kontakizunak* liburuko atal bat doa antologia honetan.

Otkrovennye rasskazy strannika duchovnomu svoemu otcu izenburuarekin errusieraz idatzia, liburua euskaratzeko frantsesera eta italierara egindako itzulpenez baliatu da Xalbador Garmendia. Jatorrizko bi bertsioak sartzea antologiaren helburutik kanpo dagoenez gero, euskarazkoa soilik eskaintzen dugu.

Erromes errusiarraren kontakizunak

XALBADOR GARMENDIA

Bigarren kapitulua

Luzaroan bazterrez bazter ibili nintzen, Jesusen otoitzak laguntzen zidala; horrek bizkortzen ninduen eta arintzen zidan bihotza bide guztietan, aldi guztietan, egoera guztietan. Halako batean iritzi nion hobe nuela bakardade handiagoan bizitzeko eta *Philokalia* ikasteko nonbait tenk egitea, ezin nuen-eta gaeuz edo eguerdi aldean atsedean hartzen nuenean baino irakurri; gogo bizi-bizia nuen liburuan murgilduz fedearen argitan bihotzeko otoitzaren bidez arimaren salbamenaren doktrina egiazkoa xurgatzeko. Zoritxarrez, ordea, ezin nuen eskulanik egin nire desioa asetzeko, umetan ezkerreko besotik ezinduta geratu bainintzen; honela bada, inon errotu ezinez Siberia aldera jo nuen, Irkutsk-eko San Inozentziorantz, siberiar ordoki eta oihanetan isiltasun handiagoa aurkitu eta irakurtzeko eta otoitz egiteko aukera hobe izango nuelakoan.

Hara abiatu nintzen, beraz, otoitza etengabe errepikatuz. Halako batez konturatu nintzen berez sortzen zela otoitza nire bihotzean, hau da, nire bihotza, pilpiraka betiko neurrian aritu arren, pilpira bakoitzean hitz santuak errepikatzen hasten zela, esate baterako 1) Jauna, 2) Jesus, 3) Kristo, eta honelaxe jarraian. Ezpainak itxi eta bihotzak zioena erne entzuten nuen; bihotz barrenera begiratzen ere saiatzen nintzen, gogoan nuen-eta nola esaten zidan nire *starets* defuntuak hori egitea oso gauza atsegina zela. Gero, mintzurria sentitzen nuen bihotzean, eta espirituan Jesukristo gure Jaunaganako hain maitasun handia ze, hura ikusi izan banu, haren oinetara pozik egingo nuen, eta heldu egingo nien, besarkatu eta malkoz igurtzi eskerrak emanez bere seme-alaba erdeinagarri eta bekatariorioi digun onginahia eta amodioagatik bere izenarekin ematen digun poz-bideagatik.

Handik berehala nire bihotzean berotasun goxo-leuna piztu zen eta bularrean gainezka egin zuen. Batez ere horrek irakurrarazi zidan *Philo-*

kalia arreta handiagoz, honela sentipen horiez zioena bertan egiaztatze-ko eta bihotzaren barne otoitzaren garapena estudiatzeko; egiaztapen hori gabe beldur nintzen amets ustelak egiteko, naturaren egintzak graziare-nak balira bezala hartzeko eta otoitzaz honen azkar jabetu nintzelako harropuzteko. Nire *starets* defuntuak adierazirik zidan hori guztia alde z aurretik. Horregatik gaua, bereziki, ibiltzeko hartzen nuen eta eguna oi-han sarrían arbolapean murko gainean eserita *Philokalia* irakurtzen pasa-tzeko. Ai ene!, zenbat gauza berri, gauza sakon eta artean jakiteko nitue-nak idoro nituen irakurketa hauekin! Egiteko horretan ari nintzenez ordu arte inoiz usteko nuen baino dohatsutasun beteagoa sentitzen nuen. Jaki-na, pasarte batzuk ezin ulertu zituen nire espiritu kaxkarrak, baina biho-tzaren otoitzaren efekteak argitzen zuen nik ulertzen ez nuena; are, inoiz edo behin ametsetan ikusten nuen neure *starets* defuntua zeinek esplika-tzen zizkidan anitz esaldi ilun eta behartzen zuen apal izatera nire arima adimen gutxikoa. Honelaxe zorientasun guztizkoan igaro nituen udako bi hilabete luze. Oihanean eta herribideetan ibiltzen nintzen gehienetan; herrixka batera ailegatzen nintzenez, zakutoa bete ogi eskatzen nuen, eskukada bat gatz, eta kuia urez bete eta beste ehun *versta* egiten nituen.

Bidelapurrek erromesari eraso

Nire arima gogortuaren bekatuengatik, edo nire espirituzko bizitzan aurrera ari nintzelako, uda hondarrean tentaldiak berri ziren. Eta begira zer gertatu zitzaidan. Behin, arratsalde batean errepide nagusitik landa nindoala, bi gizonezkorekin egin nuen topo, itxuraz soldaduak; dirua es-katu zidaten. Sosik gabe nintzela erantzun nien. Ez zidaten ordea sinetsi eta oi-hu egin zuten lazki:

—Gezurretan ari zara! Erromesek erruz biltzen dute dirua!

Bi horietako batek gehitu zuen:

—Ez du merezi honekin gehiago hitz egitea! eta buruan makilarekin jo eta konorte gabe lurrera erori nintzen zerraldo.

Ez dakit zenbat denbora egin nuen hartan bertan, baina konortera etorri nintzenez, oihanean nengoela konturatu nintzen kamioitik gertu; janzkiak xehe-xehe eginda zeuden eta zakutoaren arrastorik ez zen inon; hura zintzilik eramateko behar nuen soka muturra beste ezer gehiago ez zen ageri. Jainkoari eskerrak ez zuten eraman behar-beharrezkoa zenez inori berehala erakusteko nire kapelu zaharrean gorde ohi nuen pasapor-tea. Zutitu eta negar samina egin nuen minagatik baino gehiago zakuto lapurtutakoan zeuden Biblia eta *Philokalia* nire liburuengatik. Egun osoan, gau osoan negarrez urtu beharrean aritu nintzen atsekabez. Txiki-txiki-tandik irakurtzen nuen eta beti neronekin nuen Biblia non da? Non hainbeste irakasten eta hainbesteko kontsolamendua ematen zidan *Phi-*

lokalia? Ai ene zorigaitzaren handia, galdu baitut, behar beste etekinik atera gabe, nuen altxor preziatu bakarra. Janari espiritualik gabe honela bizitzea baino hiltzea hobeko nuen. Ezingo ditut gehiago eskuratu.

Ondoko bi egunetan apenas ibili nintzen atsekabearen atsekabez; hirugarrenean, indarrak higatuta sastraka baten ondoan erori eta loak hartu ninduen. Eta horra, ametsetan, *laura* barruan ikusi neure burua, nire *starets*aren gelan; negarrez nire atsekabearen berri eman nion. *Staretsak*, kotsolatu ondoren, esan zidan:

— Lurrekoak bazter utzi eta zerura errazago hegan egiteko balia bekizu gertatu zaizuna. Atsegintasun espiritualean eror ez zaitezen bidali zaizu proba hau. Gustuko duenari eta honi dion atxikimenduari kristauak uko egin diezaion nahi du Jainkoak, honela uste osoa haren borondatean ipintzeko. Hark, egiten duen guztia, gizakien onerako eta salbamenerako egiten du, «gizaki guztiak salba daitezen nahi baitu Hark». (1Tm 2,4). Beraz, hartzazu adore eta sinets «tentaldiarekin batera Jainkoak indarra ere emango dizue tentaldia garaitzeko» (1Ko 10,13). Aurki hartuko duzu zeure atsekabe guztiak baino kotsolamendu handiagoa.

Hitz horiek entzutearekin batera iratzarri eta neure burua indarberrituta sentitu nuen eta neure ariman argi urratzea bezalako zerbait eta baretasun berria. Egin bedi Jainkoaren borondatea!, esan nuen. Lurretik altxatu, gurutze santuaren egin eta abian jarri nintzen. Arestian bezala ari zitzaidan berriro otoitza bihotzean eta hiru egunez bidez bide joan nintzen lasai ederrean.

Halako batez ustekabearen bidean eskoltapean zeramaten bortxatu-oste batekin egin nuen buruz buru. Haienganaino ailegatu nintzenean ostu zidaten bi lapurrak ikusi nituen eta, nola zihoazen ostearen ondotik, haien oinetan ahuspez emanik, nire liburuak non ziren galdegin nien. Hasieran ez ezagutuarena egin zuten, baina gero haietako batek esan zidan:

— Zer edo zer ematen badiguzu, esango dizugu non dauden zure liburuak. Zilarrezko errublo bat behar dugu.

Zin egin nien aldez edo moldez emango niela, horretarako eskean hasi behar banuen ere.

— Tori, nahi baduzue, nire pasaporteak bahian.

Liburuak orgetan zeudela esan zidaten beste gauza ostutako batzuk entregarazi zizkietenekin batera.

— Nola eskura ditzaket berriro?

— Zoaz eta eska eskoltako kapitainari.

Hori entzun eta berehala nintzen kapitainaren aurrean. Den-dena xehe-xehe esplikatu nion. Hizketan ari ginela Biblia irakurtzen ba al nekien galdetu zidan.

— Irakurtzen ez ezik idazten ere badakit, erantzun nion; Bibliaren azalean idazkun bat ikusiko duzu nirea dela adieraziz; pasaportearen, berriz, honatx nire izen-deiturak neuk idatzita.

Kapitainak esan zidan:

— Bidelapur hauek desertoreak dira; borda batean bizi ziren eta bidariak larrutzen zituzten. Orgazain trebe batek atxilotu egin zituen atzo, *troika* lapurtu nahi ziotenean. Atsegin-pozez bihurtuko dizkizut liburuak, hor badaude bederen; baina gurekin etorri beharko duzu geldialdiraino; lau *versta* baino gehiago ez dira eta zu zarela-eta ezingo dut geldiarazi konboi osoa.

Pozaren pozez kapitainaren zaldiaren ondoan jarri nintzen abian, eta elkarrekin hizketan txor-txor joan ginen. Berehala konturatu nintzen gizaseme zintzoa eta ona zela, ez hain gaztea ere. Nor nintzen, nondik nentorren eta nora nindoan galdegin zidan. Galdera guztiei erantzun nien egia esanez; eta, halaxe, ibiliz ibiliz geldialdiko ostaturaino iritsi ginen. Nire liburuen bila joan eta hauxe esanez bihurtu zizkidan:

— Norako asmotan zara orain? Gaua etorri da; nahi baduzu gera zaitetz nirekin.

Bertan geratu nintzen. Liburuak berriro eskuratu nituelako pozak gainezka nengoen eta ez nekien Jainkoari nola eskertu; besoetan karranpak egin zitzaizkidan liburuak halakoxe gogor estutzen nituen-eta bihotzaren gainean. Malko gozoak zerizkidan begietatik eta bihotza atsegin-pozez ari zitzaidan pilpiraka.

Kapitainak begiratu eta esan zidan:

— Ezagun da plazer duzula Biblia irakurtzea.

Pozak zorutzen nengoelako ezin izan nion hitzik erantzun. Negar egin, ez nuen ezer gehiago egiten. Aurrera segitu zuen esaten:

— Ene anaia, nik ere egunero irakurtzen dut arretaz Ebanjelioa—. Eta uniformea erdi irekiz, Kiev-eko Ebanjelio txiki bat atera zuen azal zilarrezkoarekin.

— Eseri eta kontatuko dizut nola hartu nuen hori egiteko ohitura. Eup!, iguzue afaria!

Kapitainaren historia

Mahaian jarri ginen. Kapitaina kontakizuna kontatzen hasi zen:

— Gaztetatik gudarostean aritu naiz, inoiz ez garnizioan. Ofizioa ongi ezagutzen nuen eta buruek ofizial ereduzkotzat ninduten. Baina gazte nintzen eta nire lagunak ere bai; zoritxarrez edaten hasi nintzen, eta gero eta gehiago edaten nuelako, gaixotu egin nintzen; edaten ez nuenean

ofizial bikaina nintzen, baina ardo xorta bat edan orduko, sei astez ohean etzanda egon behar. Luzaz txintik atera gabe jasan ninduten, baina, azkenerako, edan ondoren buruzagi bati irain egin niolako, degradatu eta hiru urtez garnizioan aritzera kondenatu ninduten; edateari utzi ezean zigor gogorragoa ezarriko zidatela egin zidaten mehatxu. Zein egoera negargarrian nengoen ikusita, edateari uzten saiatu nintzen, baina dena alferrik; ezin izan nion nire grina galgarriari utzi eta batailoi diziplinatorio batera bidaltzea erabaki zuten. Jakinarazi zidatenean, ez nekien asko zer zetorkidan gainera.

”Egun batez, logelan eserita, gertatzen ari zitzaidanaz pentsatzen ari nintzen. Eta horra hor non datorren monje bat eliza baten alde eskean. Ahal zuenak ahal zuena ematen zuen. Ondoraino iritsi zenean, galdetu zidan:

— Zergatik zaude horren triste?

”Harekin hizketan pixka bat jardun ondoren zorigaitzoak jo ninduela esan nion. Monjeak, nire egoeraz kupituta, esan zidan:

— Hori bera gertatu zitzaion nire anaia bati, baina begira nola atera zen onik: bere gidari espiritualak Ebanjelioa utzi zion eta edateko gogoia egiten zitzaion bakoitzean kapitulu bat irakurtzeko agindu zion; edateko gogoia berriro orduko, hurrengo kapitulua irakurri behar zuen. Nire anaiak aholkua kontuan hartu zuen eta, handik pixka batera, edateko grina guztiz menderatu zuen. Badira hamabost urte ez duela edari bizirik edaten. Egizu zuk ere beste horrenbeste, eta berehala konturatuko zara ekarriko dizun onuraz. Ebanjelio bat badut; nahi baduzu, bihar ekarriko dizut.

”Hori entzun eta esan nion:

— Zer arraio nahi duzu egin dezadan zure Ebanjelioarekin, ahaleginen saiatu eta medikuek ipinitako erremedio guztiak hartu arren ezin izan baitiot neure buruari edatea galarazi. (Ebanjelioa inoiz irakurri ez nuelako nintzen horrela mintzo).

— Zaude isilik, erantzun zidan monjeak. Agindu dizudana egiten baduzu etekina kenduko diozula hitz ematen dizut.

”Biharamunean, hementxe begi aurrean duzun Ebanjelio hau ekarri zidan. Ireki, begiratu, pasarte batzuk irakurri eta esan nion:

— Ez dut nahi, ez baitut zipitzik ulertzen; ez dut elizako liburu-etako zeinuak irakurtzeko ohiturarik.

”Monjeak aholku ematen segitu zuen, eta esan zidan Ebanjelioaren hitzetan berez gordetzen dela indar mesedegarria, bertan irarrita dauden hitzak Jainkoak berak esanak baitira. Axola izpirik ez du zuk ez ulertzeak; aski da erne eta argi irakurtzea. Santu batek hauxe esan zuen: *Zuk Jainkoaren hitza ulertzen ez baduzu ere deabruak ulertzen dute zuk*

irakurtzen duzuna, eta ikaraz dardaraka daude; eta, segurik, edateko grina deabruzkoa da. Are gehiago esango dizut: Joan Krisostomo santuak idatzi zuen Ebanjelioa gordetzen den lekuak berak ilunbetako espiritu gaiztoak aienatu eta horien azpilanak galarazten dituela.

”Ezin gogoratu dut orain oso ongi —baina uste dut zer edo zer eman niola monjeari— haren Ebanjelioa hartu eta traste zaharren kutxara bota nuen; bertan geratu zen betiko ahaztuta. Handik denbora puska batera, edateko ordua etorri zen; edateko amorratzen nengoen eta kutxa ireki nuen dirua hartu eta zuzenean tabernara joateko. Ebanjelioarekin egin nuen aurrez aurre, eta, bat-batean monjeak esan zidan guztiaz gogoratuz, ireki eta Jondoni Mateoren lehenbiziko kapitulua irakurtzen hasi nintzen. Hasi eta buka ezer ulertu gabe egin nuen: baina monjeak esandakoaz gogoratu nintzen: axola gutxi du zuk ez ulertzeak; irakur ezazu erne-erne eta horrekin aski da. Bejondeiola! esan nuen nirekiko, beste kapitulu bat irakurriko dut. Ulerterrazago egin zitzaidan. Irakur dezadan hirugarrena: hasi eta berehala kanpai hotsa entzun zen: kuartelerako deia zen. Kuartelean behin sartuz gero ezin da gehiago atera; beraz egun hartan edan gabe geratu nintzen.

”Hurrengo goizean, pattarra erostera ateratzeko asmotan nintzenean, esan nuen nirekiko: Ebanjelioko kapitulu bat irakurriko al dut? Bai, eta gero gerokoak. Irakurri eta ez nintzen mugitu. Berriro ere alkohola edateko gogoia egin zitzaidan, baina irakurtzen hasi eta lasaiago sentitu nintzen. Baita indartsuago ere eta, tentaldiak erasotzen zidan bakoitzean, Ebanjelioko kapitulu bat irakurtzen nuen. Gero eta hobeto ikusten nuen neure burua. Lau Ebanjelioak irakurri eta gero ez nuen gehiago ardotarako grinarik; ardoarekiko izotzezko bihurtu nintzen. Dagoeneko hogeitun urte badira ez dudana edari bizirik dastatu.

”Egin nuen aldaketaz denak harri eta zur eginik gelditu ziren. Hiru urteren buruan berriro hartu ninduten ofizialen armadan, eta gero eta goragoko mailak eskuratu eta azkenerako kapitain bilakatu nintzen. Emakume prestu batekin ezkondu nintzen; ondasun batzuen jabe egin gara, eskuartean gaude, eta, Jainkoari eskerrak, ongixko bizi gara. Ahal bezainbat laguntzen diegu behartsuei eta erromesak etxean hartzen ditugu. Seme bat badut dagoeneko ofizial dena, mutil benetan bipila.

”Horra bada, osoki sendatu nintzenean bizitza osoan lau Ebanjelioetatik bat egunero osorik irakurriko nuela hitz eman nion neure buruari, egiteko horretan inoiz amore eman gabe. Eta halaxe egiten dut. Lan gehiegiaz eta nekearen nekez leher eginda nagoenean, oheratzen naiz eta emazteari edo semeari nire ondoan Ebanjelioa irakurtzeko eskatzen diet. Eta, honela, ez dut emandako hitza jaten. Jainkoari esker onezko ezagu-

tza agertzeko eta Hura goresteko, Ebanjelioari zilar trinkozko azala ipinazari eta beti bular gainean daramat.

Kapitainaren kontuak pozaren pozez entzun eta esan nion:

— Horren antz-antzekoa ezagutu dut: gure herrian bazen langile bat aparta, bere lanbidean oso iaioa; baina, bere zoritxarrerako, edan egiten zuen, maiz antzean gainera. Gizon jainkotiar batek esan zion pattarra edateko gogoia egiten zitzaion aldi bakoitzean Jesusen otoitza hogeita hamahiru aldiz errezatzeko Hirutasun Santuaren eta Jesusek munduan egin zuen bizialdiaren ohoretan. Halaxe egin eta berehala utzi zion edanari. Are: hiru urte barru monasterioan sartu zen.

— Eta biotatik zeinek du baliorik handiena, Jesusen otoitzak ala Ebanjelioak?

— Biak gauza bera dira, erantzun nion. Ebanjelioa Jesusen otoitza bezalakoa da, Jesusen izen dohatsuak bere baitan ebanjelioko egia guztiak biltzen baititu. Elizako Gurasoek diote Ebanjelioa osorik biltzen duela Jesusen otoitzak.

Ondoren gure otoitzak esan genituen; San Markoren Ebanjelioa hasieratik irakurtzen hasi zen kapitaina eta nik bihotzean otoitz eginez entzuten nion. Goizeko ordu bietan kapitainak irakurtzeari utzi eta lotara joan ginen.

Beti ohi nuen bezala, oso goiz jaiki nintzen, artean beste guztiak lo zeutzanean. Argi urratzarekin batera nire *Philokalia* maitagarria irakurtzen hasi nintzen buru eta belarri. Pozarren zabaldu nuen! Luzaz kanpoan ibili ondoren berriro aita aurkitu nuela iruditzen zitzaidan edo hilen arte-tik piztu zen adiskidea. Besarkatu eta Jainkoari eskerrak eman nizkion itzuli zidalako; Teolepto Filadelfiakoa irakurtzen hasi nintzen *Philokaliaren* bigarren partean. Harrituta geratu nintzen hiru jardunbide aldi berean egiteko proposatzen dituela irakurri nuenean: mahaian jartzen zarenean, esaten du, emaiozu janaria gorputzari, irakurketa belarriari eta otoitza espirituari. Aurreguneko afalondo onuragarriaren oroitzapenak alabaina bere horretantxe esplikatzan zidan pentsamendu hori. Noizbait behar eta, orduantxe ulertu nuen bihotzaren eta espirituaren artean dagoen aldearen misterioa.

Kapitaina iratzarri zenean, niganako agertu zuen onginahia eskertze-
ra eta adio esatera joan nintzaion. Kikera bete te eman zidan, zilarrezko errublo bat eta elkarrri agur esan eta gero, sakabanatu egin ginen. Berriro bideari lotu nintzaion pozez zorutzen.

Lehenbiziko *versta* egin nuenean soldaduari errublo bat agindu niola gogoratu zitzaidan, eta orain bat banuen poltsikoan. Eman behar nion ala ez? Alde batetik, nire barrenean esaten nuen, kolpeka hartu ninduten eta

ebatsi egin zidaten eta honezkero ezingo didate ezer txarrik egin atxilotuta baitaude; beste alde batetik (bestalde) ordea esaten nuen: «oroit zaitetz Biblical idatzita dagoenaz: «zure etsaia goseak badago, emaiozu jaten» (Er 12,20). Eta Jesukristok berak ere bai: «Maita itzazue zuen etsaiak» (Mt 5,44) eta are «soinekoa kentzeko inork auzitan sartu nahi bazaitu, eman soingainekoa ere» (Mt 5,40)».

Gogorazio horiek izan ondoren, berriro atzera egin nuen eta martxan hasteko konboia formatzen ari zeneantxe ailegatu nintzen geldialdiko ostatura; bi bidelapurrengana bizi-bizi joan eta errubloa ezarri utzi nien ahurrean esanez:

— Egin otoitz eta penitentzia; Jesukristo gizon-emakumeen adiskidea da eta ez zaiztuzte inoiz eskutik utziko!

Hitz horiek esan eta haienaz kontrako bideari lotu nintzaion.

Bakardadea

Errepidean barrena berrogeita hamar *versta* egin ondoren, mendibideetatik jo nuen, bakarlekuago baitziren eta irakurtzeko egokiagoak. Honelaxe ibili nintzen joan eta joan oihanez oihan; inoiz edo behin bistatzen nuen herrixkaren bat. Sarri, egun osoa oihanean geratzen nintzen *Philokalia* irakurtzen eta oso irakaspen sakon eta baliozkoak ateratzen nituen hartatik. Jainkoarekin batzeko bihotza irakiten nuen barne otoitzaren bidez, zeina *Philokalian* estudiatzen eta kontrolatzen gogotik saiatzzen nintzen. Aldi berean triste nengoen aterbe bat aurkitu ezin izan nuelako patxadan eta geldiunerik gabe irakurtzen aritzeko.

Garai horretan irakurtzen nuen Biblia ere, eta gero eta hobeto ulertzen nuela konturatu nintzen; pasarte ilun gutxiagorekin egiten nuen topo. Idazteunean gordean dauden misterioak ezagutzeko giltza *Philokalia* dela diotenean, arrazoi dute Elizako Gurasoek. Horren gidaritzapean hasi nintzen ulertzen Jainkoaren Hitzaren esanahi ezkutukoa eta ondoko hauek zer esan nahi duten ikusten «gizon barnekoa bihotz barruan ezkutatutakoa» (1P 3,4), «Jainkoaren erreinua zeuen barruan dago» (Lk 17,21), «Espiritu Santua gure alde ari da eskatzen» (Erm 8,26); hitz hauen eta beste askoren esanahia ulertu nuen: «Zaudete Nigan» (Jn 15,4), «emaidazu zure bihotza» (Ez 23,26), «Jantzi zaitezte Jesukritoren soinekoaz» (Erm 13,14), «Espiritu Santuaren ezkontza gure bihotzean» (Ap 22,17), «Abba, Aita» (Erm 8, 15-16). Nire bihotz barrenenean otoitz egiten nuenean, inguruan nituen sorkari guztiak zoragarriak iruditzen zitzaizkidan: zuhaitzak, belarra, txoriak, lurra, airea, argia, bazirudien denak ari zitzaizkidala esaten gizonarentzat eginak direla, Jainkoaren gizon-emakumeenganako maitasunaren lekukoak direla; denak ari ziren otoitzean, denak ari ziren kantuz Jainkoaren (ospeari) aintzari. Honelaxe heldu nintzen ulertzera *Philoka-*

lian esaten den “kreazioaren mintzairaren ezagutza”, eta garbi ikusi nuen Jainkoaren sorkariekin hitz egin daitekeela.

Basozainaren kontakizuna

Honelaxe segitu nuen ibili eta ibili. Halako batez sartu nintzen herrialde galdu urrutiko batean, non hiru egunez segidan ez nuen ikusi herrixka bat bera ere. Ogirik gabe nintzen eta goseak ez hiltzeko zer egin behar ote nuen galdezka ari nintzaion kezkatuta neure buruari. Baina bihotz barrenean otoitz egiten hasi orduko berehala aienatu ziren estutasunak; Jainkoaren esku utzi nuen neure burua eta poza eta lasaitasuna berriro neurekin nituen. Banindoan astiro-astiro tipi-tapa aurrera oihan zabal sarri ikaragarri handi batetik barrena eta horra non agertzen zaidan zuhaitzen artetik basozain-zakur bat; txistu egin eta txeratsu inguratu zitzaidan, fereka nezan. Hura ikustearekin poztu nintzen eta nire artean esan nuen: hona hemen Jainkoaren borondatea! Oihanean segur aski artalderen bat ibiliko da eta artzainaren txakurra izango da edota ehizan dabilen ehiztariren batena; dena dela, badut orain ogi koxkor bat eskatzeko aukera, bi egun badira-eta ezer jan gabe nagoela, edota bestela hemen aldean herrikkaren bat ba al dagoen galdegingo diot. Txakurra, ondoan itzulinguruak eginez ibili ondoren, jateko ezer ez zegoela sumatu zuenean, oihanean sartu zen berriro, etorri zen bidezidorretik bertatik barrena. Atzetik segitu nion, eta berrehunen bat metrora, gutxi gorabehera, berriro ikusi nuen, zakur-zuloan zaunkaka burua tente zuhaitz tartean agerian zuela.

Geroxeago arbola artetik baserritar bat ikusi nuen gerturatzen, gorputza segail, aurpegia zuhail, ez gazte ez zahar, tarteko. Haraino nondik nora ailegatu nintzen galdetu zidan, eta nik esan nion ea zer egiten zuen urruti galdu haietan. Eta elkarren artean txerazko hitzak trukatu genituen. Txabolan sartzeko erregutu ondoren, basozaina zela esan zidan baserritarrak eta aurki botatzekotan ziren basoa zaintzeko agindua zuela. Ogia eta gatza eskaini zizkidan, eta elkarrizketan hasi ginen.

— Inbidia diot zure bizitza bakartiari, esan nion; ez du nirearen antzik, beti batetik bestera norako jakin gabe, beti jendez inguratua.

— Nahi baduzu, esan zidan, gera zaitez hemen bizitzen; hor aldealdean bada borda zahar bat, nire aurreko basozaina egoten zena; hondatu samarturik dago, baina uda pasatzeko konpontzeko moduan izango zara. Baduzu pasaporteia; herritik astero ekartzen didaten ogiarekin askiko da biontzat, eta erreka inoiz agortzen ez dena ere hortxe ondoan dugu. Nik, ene anaia hori, badira hamar urte ogia baino jaten eta ura baino edaten ez dudana. Baina, jakina, uzta biltzeko sasoi bukatutakoan, berrehun gizon etorriko dira basoa botatzera; hemen ez dut zer eginik izango eta zuri ere ez dizute hor bizitzen utziko.

Ia haren oinetan ahuspez belaunikatu nintzen, halakoxe poza hartu nuen-eta hitz horiek entzutean. Nireganako onginahiagatik ez nekien Jainkoari nola eskertu.

Hain gartsuki desiratzen nuena eta hainbeste aldiz amets egin nuena, bat-batean neure eskuko nuen. Udazkenean sartzeko lau hilabete falta dira eta denboraldi honetan isiltasunaz eta bakeaz baliatuko naiz *Philokalia*-ren laguntzarekin otoitz jarraitua bihotz barreanean estudiatzeko. Bordan geratzea erabaki nuen, beraz. Hitz eta pitz segitu genuen berriketan eta anaia maitagarri hark bere bizitza kontatu eta bere asmoen berri eman zidan.

— Nire herrian, esan zuen, ez nintzen azkena; banuen lanbide bat, oihalak gorritz eta urdinez tindatzen nituen; aisian nintzen, ez halere bekatuik gabe: bezeroak askotan engainatzen nituen eta noiznahi biraoka eta zinka ari nintzen; hitz itsusi zantarrak esaten nituen eta ardozalea nintzen eta liskartia eta bazter nahastailea.

— Nire herrian bazen txantre zahar bat liburu zahar bat zuena, oso zaharra, Azken Judizioaz. Maiz joaten zen fededun ortodoxoen etxeetara liburua irakurtzera, eta ordainez sos batzuk ematen zitzaizkion. Nirera ere inoiz edo behin etortzen zen. Gehienetan hamar sos ematen nizkion eta edalontzi bete pattar, eta irakurtzen jarraitzen zuen oilaritea arte. Behinola lanean eta aldi berean entzuten ari nintzen; bera, berriz, infernuko oinazeez eta hilen pizteaz, nola Jainkoa hilak eta biziak juzgatzen etorriko den, nola aingeruek turuta soinua aterako duten, nola harrek irentsiko dituen bekatariak, hango suaz eta bikeaz, horiez guztiez pasarte bat irakurtzen ari zen. Bat-batean, beldur izugarri batek hartu ninduen eta nire artean esan nuen: ezingo diet oinaze horiei alde egin! Gaurgero nire arimaren salbamenaz arduratuko naiz eta agian lortuko dut nire bekatuak erremediatzea. Luzaroan gogoetan egon ondoren, azkenerako nire ofizioa bertan behera uztea erabaki nuen; etxea saldu eta, bakarrik bizi nintzenez, basozain egin nintzen, eta ordainez soldata bezala ogia gosea asezteko, jantziak gorputza estaltzeko eta kandela batzuk otoitz orduan pizteko eskatu nituen, gehiago ezer ez.

Badira hamar urte hemen bizi naizela. Egunean otordu bakarra egiten dut eta ogia eta ura baino ez dut hartzen. Gauero oilaritean jaikitzen naiz eta eguna zabaldu arte belaunikaldiak eta gurpenak egiten ditut lurrreraino; otoitzean ari naizenean zazpi kandela pizten ditut irudien aurrean. Egunez batetik bestera oihanean ibiltzen naizenean larruzalaren gainean hirurogei librako katea eramaten dut. Ez naiz gehiago biraoka eta zinka ari, ez garagardorik ez alkoholik dut edaten, ez naiz inorekin haserretzen; emakumerik eta neskarik ez dut inoiz begiz jo.

Hasieran, pozik nintzen honelako bizimoduarekin, baina noizean behin halakoxe gogorazioak etortzen zaizkit, burutik ezin kendu ditudanak. Jainkoak daki nire bekatuen barkamena iritsiko dudan, dena dela bizimodu hau oso gogorra da. Eta gainera, egia ote da liburuak esaten zue-na? Nola arraio berpiztu daiteke gizona? Orain dela ehun urte eta gehi-go hil zirenen hautsa bera ere desagerturik baita. Eta, infernurik bada, badea ala eztea? Kontua da beste mundu horretako joan-itzulia ez duela oraindik inork egin; gizona hiltzen denean, usteldu egiten da eta ez da haren arrastorik gelditzen. Liburu hau, agian *popeek* edo funtzionarioek guri, gu bezalako astakaikuoi beldur-ikara sartzeko idatziko zuten, horien gero eta esaneago izateko. Eta honela mundu honetan zorigaitzak jota bizi gara eta batere pozbiderik gabe eta bestean beharbada ez da ezer egongo. Beraz, zertarako honela jarraitu? Ez ote da hobe oraintxe bertan esku artean dugunari etekina kentzea? Burutazio hauek burutik kendu ezinean nabil beti, —gehitu zuen—, eta beldur naiz ez ote naizen berriro lehengo ofizioari heldu beharrean izango.

Gutziz kupitu nintzen hartaz eta nire barrenerako halaxe nioen: jakintsuak eta intelektualak bihurtzen direla libre-pentsalari eta ez dutela gehiago ezertan sinesten uste du jendeak, baina agi denean gure anaiok, baserritar xalook ere fedearen kontrako ederrak asmatzen dituzte. Segur aski mundu ilunak sarbidea du gu guztiongan eta agian aiseago erasozten die pertsona lañoiei. Horra, ba, ahal diren arrazoibiderik onenak taxutu behar dira eta etsaiaren aurka Jainkoaren Hitzaz gogor baliatu.

Honela bada, anaia hau kemenez indarberritzeko eta bere sinismenean sendotzeko, zakutik *Philokalia* atera eta 109. kapitulu ireki nuen, Hesikio dohatsuari dagokionean. Irakurri eta esplikatu nion zigorraren beldurra ez dela bekatuaren kontrako erremedio bakarra, arima ezin daiteke-eta libratu pentsamendu gaiztoetatik espiritu ez eta bihotzez garbi egonda baizik. Hau guztia barne otoitzaren bidez lortzen da. Gizona, normahi dela, infernuko oinazeengatik ez ezik zeruko erreinuaren irrikagatik lotzen bazaio aszetikari, jarraitu nuen esaten, Elizako Gurasoek jokabide hori mertzenarioarenarekin berdintzen dute. Horiak diotenez, esklaboak ohi dira oinazeen beldur eta mertzenarioek ohi dute saria irrikatzen. Jainkoak, aldiz, seme-alaba gisa hurbil gakizkion nahi du; maitasunak eta kartsutasunak eraginda nahi du Jainkoak zintzo porta gaitezen, eta Harekiko batasun guztizkoaz ariman eta bihotzean goza dezagun.

— Alferrik akituko zara eta hilduratuko duzu zeure burua proba eta penitentzia fisiko gogorrenekin; ez baldin baduzu beti Jainkoa espirituan eta Jesusen otoitza bihotzean, ezingo diezu inoiz ihes egin pentsamendu gaiztoei; edozein abagunetan bekatu egiteko gertu egongo zara. Hasi, bada, anaia, Jesusen otoitza aspertu gabe errezatzen; erraz egin dezakezu

bakardade honetan eta berehala antzemango diozu nola ateratzen diozun probetxua otoitzari. Burutazio inpioak desagertu egingo dira eta fedea eta Jesukristoganako maitasuna agertuko zure barrenean; hilak nola berpiztu daitezkeen ulertuko duzu eta Azken Judizioa den bezalakoxea agertuko zaizu. Eta harrituta geratuko zara zeure bihotzean sumatuko duzun poz eta arintasunarekin; ez zara gehiago akituko edo asaldatuko zure penitentziatzako bizitzagatik!

Gero, ahal nuen ondoena, Jainkoaren agindua eta Elizako Gurasoen irakaspenak aintzat hartuz Jesusen otoitza nola erreza behar zuen esplikatu nion. Bazirudien horixe bakarrik zela nahi zuena, eta hori eta horrenbeste bere asaldua gutxitzen hasi zen. Orduan, elkarrengandik aldebanatu eta, hark esan zidan borda zaharrean sartu nintzen.

Espirituzko lanak

Ene Jainkoa! hori poza, kontsolamendua, lilura sentitu nuen zulo haren atetik edo, hobeto esanda, hilobiarenetik barrena pasa nintzenean; jauregi eder-ederra zela iruditu zitzaidan, dena alegrantzia. Malko samurrak nerizkiola esker onez ari nintzaion Jainkoari neure baitarako nioela: orain, bai, leku lasai, bare eta baketsu honetan gogotik egin behar dut lan eta Jainkoari erregutu behar diot argi diezadan espiritua. Eta halaxe *Philokalia* irakurtzen hasi nintzen arreta handiz, hasieratik bukaeraraino. Denbora laburrik barne bukaturik nuen irakurketa; berehala konturatu nintzen liburu honen jakinduriaz, santutasunaz eta sakontasunaz. Baina liburuan gai asko harrotzen denez gero, ezin ba denak ulertu, are gutxiago nire espirituaren indarrak bildu barne otoitzaz zetorren irakaspen bakarraz bihotzaren barrengo otoitz berezko eta jarraitura iristeko. Hala ere gogo bizi-bizia nuen hartara iristeko Apostoluak eman zigun agindu zerutiarraren arabera: “Irrika itzazue dohainik onenak” (1Ko 12,31) eta gainera, “ez itzali Espirituaren indarra” (1Ts 5,19). Mila pentsamendu nerabilzkiek iraulka, baina ez nekien zer egin. Ez dut behar beste adimen ez ulermen, ez dut inor laguntzeko. Jainkoa aspertu arte otoitz egiteari ekingo diot, eta honela agian argitu nahi izango dit espiritua. Egun osoa, geldialdirik gabe, erreztatzen pasatu nuen; barealdia etorri zen nire burura eta loak hartu ninduen. Eta *starets*aren gelan nengoela egin nuen amets eta *Philokalia* esplikatzen zidala esanez: liburu santu hau jakinduriaz betebeterik dago. Jainkoaren asmo isilei buruzko altxor misterioitsu irakaspezez beterikoa da. Nonahi eta nornahiren eskura ez dago liburua; bakoiatzaren neurrira eginiko arauak heldu dira, sakonak buru sakontentzat eta xaloak xaloentzat. Horregatik zuek, pertsona xalook, ez dituzue Elizako Gurasoen liburuak hemen datozen bezala bata bestearen atzetik jarraian irakurri behar. Teologiaren eredura dator horko ordena; baina gutxi ika-

sia denak, barne otoitza zer den *Philokalian* jakin nahi duenak, ordena honi segitu behar dio: lehenik, Nizeforo monjearen liburua irakurriko du (bigarren partean); gero hurrena, Gregorio Sinaitarena osorik, kapitulu laburrak izan ezik; hirugarrenik, Simeon Teologo Berriaren otoitz egiteko hiru moduak eta berorren Fedeari buruzko tratatua; eta laugarrenik, Kalixto eta Inazioen liburua. Testu horietan normahiren eskura dago bihotzeko barne otoitzari buruzko irakaspen osoa. Testu ulerterrazagoa nahi baduzu, irakur ezazu laugarren partean Kalisto, Konstantinoplako patriarkaren otoitz-eredu laburtua.

Philokalia esku artean nuenez, pasarte hori aurkitzen gogotik saiatu nintzen, baina ezin izan nuen. *Staretsak*, orri batzuk batera eta bestera itzuli eta, esan zidan: nik esango dizut non dagoen. Eta lurretik ikatz puska bat hartu eta marra bat egin zuen pasartearen ondoan orrialde alboan. Arretaz entzuten nituen *staretsaren* hitzak eta oroimenean tinko eta zehazkiro gordetzen saiatu nintzen.

Halako batean esnatu eta artean egunak ez zuela zabaldu ikusi nuen, etzanda segitu nuen, ametsetan ikusi nuena buruan irauliz eta *staretsak* esan zidana behin eta berriz errepikatuz. Gero gogoetan ari nintzen: joan eta bila honela agertzen zaidan hori nire *starets* defuntua den ala nire burutazio itxura hartzen dutenak diren, ezen sarri eta luzaz pentsatzen baitut *Philokalian* eta *staretsarengan*. Espiritua zalantzaz beterik nuela jaiki egin nintzen, argi urratzen hasia zuen eta. Eta horra bat batean non ikusten dudan mahaitzat erabiltzen nuen harri gainean *Philokalia* zabalik *staretsak* seinalatu zidan orrialdean eta bertan ikatzaz egindako marra, ametsetan ikusi nuen bezalaxe; ikatz puska bera ere hantxe zegoen artean liburuaren ondoan. Txundituta gelditu nintzen, oso gogoan nuen-eta ohera baino lehen ez nuela liburua han utzi; lotara baino lehen itxi eta nire ondoan utzi nuen eta gogoratzen nintzen gainera orrialdean ez zela marrarik ageri. Zera horiek guztiek uste osoa eman zidaten egiazko agerraldia izan zena eta nire *staretsaren* santutasuna egiaztatu zidaten. Eta, beraz, hark agindu zidan ordenan irakurtzen hasi nintzen *Philokalia*. Behin irakurri nuen, gero beste behin, eta, hala, irakurketak nire kartsutasuna sutu zuen eta nire desio bakarra zen irakurri nuen guztia gauzatzea. Barne otoitzaren zentzuaz argi eta garbi jabetu nintzen, baita horretara iristeko behar diren bitartekoez ere, halaber ondorioez; arima eta bihotza nola pozten dituen ikusi nuen eta poztasun hori Jainkoagandikakoa den, izaditikoa den ala amets irudipenezko hutsa den bereizi daitekeela ederki konprenitu nuen.

Simeon Teologo Berriaren irakaspenei jarrai, beste ezer baino gehiago bihotzeko txokoa aurkitu nahi nuen. Begiak itxi eta bihotz aldera begiratzen nuen, bularraren ezkerreko aldean dagoen bezalaxe irudiaraziz

eta haren taupadak arretaz entzunez. Ariketa hori hasieran ordu erdi batez egiten nuen, egunero askotan; hasieran dena ilunbez beteak ikusten nuen; baina agudo asko agertu zen nire bihotza eta sentitu nuen haren takateko sakona; ondoren Jesusen otoitza bihotzean sartzea lortu nuen eta han ernetzea, arnasarekin batera, Gregorio Sinaita santuak, eta Kalixtok eta Inaziok esaten diguten moduan. Hori lortzeko espirituz begiratzaren nion nire bihotzari, arnasa hartzen nuen eta bularrean gordetzen hauxe esanez: *Jesukristo gure Jauna*, eta arnasa botatzen nuen esanez: *erruki zakizkit*. Hasieran ordubete edo bi ordu ematen nituen hori egiten, baina geroxeago gero eta sarriago saiatzen nintzen ariketa berarekin eta azkeneko ia egun osoa ematen nuen horretan. Neure burua gogaituta, nekaturta edo kezkatuta sumatzen nuenean, berehala irakurtzen nituen *Philokalian* bihotzaren jardueraz jarduten zuten pasarteak, eta otoitz egiteko irrika eta kartsutasuna arrapizten zitzaidan barrenean. Handik hiru aste betera bihotzean min sentitu nuen, eta gero epeltasun goxoa eta sentimendu baketsu-pozgarri handia. Honek guztiak kemen handiagoa eman zidan otoitz egiten aritzeko, hartan nuen jarria beti gogoa, eta poztasun handia sentitzen hasi nintzen. Harrezkero noizean behin hainbat sentipen berri sumatzen nituen bihotzean eta espirituan. Batzuetan irakiten bezala hasten zitzaidan bihotza, eta arintasun, askatasun eta poz handi-handia sentitzen nuen, eta horrek guztiak antzaldatzen ninduen eta estasian jaritzen. Batzuetan amodio kartsua sentitzen nuen Jesukristoganako eta Haren sorkari guztienganako. Batzuetan malkoak berez isurtzen ziren, nitaz, bekatari gogortu honetaz errukitu zen gure Jaunaganako esker onezko ezagutzaz bihotza beteta. Batzuetan nire espiritu urritua argi bizi-biziz betetzen zen eta ordu arte burura ezin nituenak ere argiro ulertzen nituen. Batzuetan nire bihotzeko epeltasuna gorputz osoan barreiatzen zen eta zirrarara handiz hasten nintzen sentitzen Jainkoaren ezin kontatu ahalako presentzia. Batzuetan poz dardara indartsu eta sakona nabaritzen nuen Jesukristo gure jaunaren izena ahoskatzen nuenean eta ulertzen nuen hitz hauek esan nahi zutena: “Zuen artean dago Jainkoaren erreinua” (Lk 17,21).

Pozbide onuragarri hauek nituenean konturatu nintzen bihotzeko otoitzaren ondorioak hiru eratakoak direla: espirituan agertzen direnak, zentzumenetan agertzen direnak eta adimenean agertzen direnak. Espirituan agertzen da, esate baterako, Jainkoaren amodioaren samurtasuna, barren-go baretasuna, espirituaren liluramendua, pentsamenduen garbitasuna, Jainkoaren ideiareneko distira; zentzumenetan, bihotzeko epeltasun atsegina, gorputz adarren gozamen guztizkoa, bihotzeko pozezko irakinaldia (zirrarara), arintasuna, bizitzaren indarra, gaixotasunekiko eta nahigabeekiko minberatasunik eza; adimenean, arrazoiaren argitasuna, Liburu Santuen ulermena, izadiaren hizkeraren ezaguera, alferrarazoei ez atxikitzea, bar-

ne bizitzaren emetasunarekiko kontziente izatea, Jainkoaren hurbiltasunaz eta Haren guganako maitasunaz segurtasuna.

Eginkizun hauetan poztasun handian bost hilabete bakardadean iragan ondoren, bihotzeko otoitza egiten erabat ohitu nintzen, hain ohitu ere atertu gabe egiten bainuen, eta halako batez ohartu nintzen bera baka-rik, berez zertzen zela, nik neure aldetik ezer egin gabe; iratzarrik nengoenean ez ezik lo nengoenean ere ernetzen zen bihotzean eta espiri-tuan, eta tai gabe geldialdirik gabe ari zen bere kabuz inoren eraginik gabe. Nire arima esker onez ari zitzaion Jainkoari eta bihotza bozkarioz jauzika une oroz.

Basoa botatzeko garaia etorri zenean aizkolariak bertara inguratu zi-ren eta ezinbestean utzi egin behar izan nuen nire borda isila. Basozainari eskerrak eman eta otoitz egin ondoren, Jaunak bere onginahia erakutsi nahi izan zidan lur eremu hari muin egin, zakua sorbaldatik zintzilik jarri eta alde egin nuen. Bazterrik bazter ibili eta ibili nintzen Irkutsk-era aile-gatu arte. Nire bihotzaren otoitz berezkoa kontsolamendu handia izan zen niretzat kamioz kamio egin nuen bidaldi luzean, inoiz hutsik egin gabe beti poztu ninduen; inon eta inoiz ez zen traba izan gogo nuena egiteko, eta ez zuen ezerk urritu ahal izan. Lanean ari naizenean otoitza berez ari da nire bihotzean eta hala lana bizkorrago egiten dut; zerbait erne entzu-ten edo irakurtzen dudanean ere, otoitzean jarraitzen du, eta bata zein bestea biak batera sentitzen ditut, bitan banaturik banengo bezala edo nire gorputzean bi arima lanean ariko balira bezala. Oi, ene Jainkoa, bai mis-teriotsua dela gizakia!...